

2006ko lehen hiruhilekoan %19,4 heriotza gutxiago izan zen

Heriotzen kausa nagusia zirkulazio sistemaren eritasunak izan ziren, eta bigarrena, tumoreak

EUSTATen datuen arabera, 2006ko lehen hiruhilekoan 4.906 pertsona hil ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, aurreko urteko denboraldi berean baino %19,4 gutxiago. Lurraldez lurralde, Araban 594 pertsona hil ziren (%19,3ko gutxipenarekin), Bizkaian 2.733 (-%18,8) eta Gipuzkoan 1.579 (-%20,5).

Urteko lehen hiruhilekoa izan ohi da heriotza gehien gertatzen dena. Arnas aparatuen gaixotasunak izan ohi dira heriotza-kopurua gehien igotzea ekartzen dutenak. Aurten, ordea, jaitsiera garrantzitsua izan da 2005eko hiruhileko beraren aldean, zehazki, %44,7.

Gainera, 2006ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, %18,9 jaitsi dira zirkulazio-sistemako gaixotasunak. Arrazoi horregatik 1.536 pertsona hil ziren, beraz, horixe da heriotzen kausa nagusia, heriotza guztien ia heren baten kausa izan baitzen.

Heriotzen bigarren kausa tumoreak izan dira, 1.368 heriotza ekarri dutenak (%27,9). Hirugarren tokia arnas aparatuen eritasunentzat da, neguko hilabete hauetan 543 heriotza (%11,1) ekarri zizkigutenak.

Sexuaren arabera, heriotzaren eragileak ezberdinak izan ziren. Gizonen artean, tumore baten ondorioz hildakoak zirkulazio-sistemako arazoren baten ondorioz hildakoak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, ordea, heriotza gehien eragin zuten gaixotasunak kardiobaskularrak izan ziren eta bigarren gaixotasunak tumoreak. Arnas sistemako gaixotasunak bi sexuen artean heriotzaren hirugarren arrazoi moduan mantentzen dira.

2006. urteko lehen hiruhileko honetan, heriotzen artean urte bat bete ez zuten 13 ume hil ziren; 5 mutil eta 8 neska.

2006ko lehen hiruhilekoko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen, 62 pertsona gutxiago izan zirelako. Lurraldeka, Arabak eta Gipuzkoak saldo positiboak izan zituzten, 108 eta 92 pertsona hurrenez hurren. Bizkaian, aitzitik, heriotzak jaiotzak baino gehiago izan ziren (-262).

1 Taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa.

	2006ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2005eko 4. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2005eko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.906	100,0	4.486	100,0	6.088	100,0
Gizonezkoak	2.567	52,3	2.387	53,2	3.168	52,0
Emakumezkoak	2.339	47,7	2.099	46,8	2.920	48,0
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.906		4.486		6.088	
Tumoreak	1.368	27,9	1.326	29,6	1.439	23,6
Zirkulazio-aparatua	1.536	31,3	1.391	31,0	1.894	31,1
Arnas aparatua	543	11,1	410	9,1	982	16,1
Txegoste-sistema	241	4,9	235	5,2	259	4,3
Istripuak	144	2,9	156	3,5	178	2,9
Gainerako gaixotasunak	1.074	21,9	968	21,6	1.336	21,9
GIZONEZKOAK	2.567		2.387		3.168	
Tumoreak	895	34,9	851	35,7	950	30,0
Zirkulazio-aparatua	727	28,3	647	27,1	875	27,6
Arnas aparatua	307	12,0	243	10,2	542	17,1
Txegoste-sistema	143	5,6	111	4,7	144	4,5
Istripuak	103	4,0	111	4,7	110	3,5
Gainerako gaixotasunak	392	15,3	424	17,8	547	17,3
EMAKUMEZKOAK	2.339		2.099		2.920	
Tumoreak	473	20,2	475	22,6	489	16,7
Zirkulazio-aparatua	809	34,6	744	35,4	1.019	34,9
Arnas aparatua	236	10,1	167	8,0	440	15,1
Txegoste-sistema	98	4,2	124	5,9	115	3,9
Istripuak	41	1,8	45	2,1	68	2,3
Gainerako gaixotasunak	682	29,2	544	25,9	789	27,0

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

 Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Banco de datos: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>